Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

322

Apirilak 1, 2018

2 Irun Atzo Irun Gaur
3 AHTaren lanak, Gaintxurizketan geldirik
4-5 Sexu abusuak elizan
6-7 Irundarrak munduan zehar lanean
8 Elkarrizketa: Aritz Martiarena rally pilotua
9 Aldaketa garaia Mariñoko emakumeen taldean
10 Kolaborazioa: Gorka Martinez
11 Haurren leihoa
12 Bertsoak / Gazteen lanak
13 Beti Gazte: Saioa Lopez dantzari profesionala
14 Gazte Informazioa
15 Agenda

"Askoz irekiagoa naiz orain, artista gisa"

SAIOA LOPEZ BRIONES, dantzari profesionala

Argazkia: Estudio Gover

IZURA EGIGUREN, ANA ROSA

Margolaria. Tafallan jaio zen 1943.urtean, baina Irunen bizi da aspaldi. Gaspar Montes Iturriozekin ikasi zuen, baita Madrilgo Arte Ederren Eskolan ere. 1970eko hamarkadan, Belgikako gobernuaren beka bat lortu zuen, Bruselan ikasketekin jarraitzeko.

Lehen erakusketak 1972 urtean egin zituen, Donostian eta Hondarribian. Ondoren, Ilustrazioaren Artea erakusketan parte hartu zuen, Madrilen, Bartzelonan, Granadan, Londresen (Erresuma Batua), Holandan, eta Argentinako eta Chileko zenbait hiritan.

Gipuzkoako Margolariak eta Euskal Margolaritza sariak jaso itu. 1975ean, Bartzelonako GAN Galeriak antolatutako grabatu erakusketa batean parte hartu zuen. Grabatu eta estanpazio ikasketak zabaltzeko, Frantziako gobernuaren beka bat jaso zuen. Azken erakusketetako bat Irunen egin zuen, 2014 urtean, Gaspar Montesi eskainia.

Iturria: Agustin Morate. Irun y sus gentes.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena
Unai Oiartzun

Euskara zuzentzailea:
Unai Oiartzun

Publizitatea:
Amaia Terrazas
(amaia@irunero.eus)
Ion Otxoa
(ion@irunero.eus)

Diseinuaren eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L
www.837comunicacion.com

ISSN:
1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 2052

www.irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLITICA LINGUISTICA

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Argirik ez Gaintxurizketako tunelaren beste aldean

Hartzekodunen lehiaketan dago obran lanean ari zen Coprosa enpresa

“Langileok konponbide bat eskatzen dugu. Guk lanean jarraitu nahi dugu, besterik ez”

José Joaquín Etxaniz, Coprosako langilea

“Dietak eta ordu estrak zor dizkiete langile batzuei, azaroaz geroztik”

Manu Tena, ordezkari sindikala

Geldirik daude Abiadura Handiko Trenaren lanak Gaintxurizketan. Coprosa enpresa asturiarrari esleitu zion obra Adif trenbide azpiegiturak kudeatzen dituen estatuko entitate publikoak. Baina hartzekodunen lehiaketan sartu da otsailean, eta langileak etxean daude martxoaren hasieraz geroztik. Ordaindutako baimena dute, baina konponbide eske ari dira, lanean jarraitu ahal izateko. Enpresak hartzekodunekin akordiorik lortzen ez baldin badu, Adifek beste enpresa bati esleitu beharko dio obra. Kasu horretan, langileek haien kontratuak gal ditzakete.

Ekainerako aurreikusita zegoen AHTaren Gaintxurizketako tunelaren obraren amaiera. Bistan da, ordea, ez dutela ordurako amaituko. Are gehiago, beste urte erdiz luzatu daiteke, behintzat, Adifek beste enpresa bati esleitzen baldin badio. Orain arte bertan lanean ari zen Coprosa enpresa hartzekodunen lehiaketan dago, eta negoziazioak ez doaz bide onetik. “Momentuz etxean gelditu gara, eta beste aurrerapenik ez baldin badago, horrela jarraituko dugu”, adierazi du José Joaquín Etxaniz Coprosako langileak.

Lezon lantegia du enpresak, baina Asturiasko Oviedon du egoitza nagusia. Gaintxurizketan beharrean ari ziren langile gehienak asturiarrak dira, hain zuzen ere. Haien lan baldintza txarrak salatu ditu Manu Tena ELAko ordezkari sindikalak: “Dietak eta ordu estrak zor dizkiete, azaroaz geroztik”. Haien beldur handiena, hala ere, lanpostuak galtzea da, Adifek Gaintxurizketako obra beste enpresa bati esleitzen baldin badio. “Eskatzen duguna da, kasu horretan, enpresa berriak langileak subroga ditzala. Haiek dira hemen lanean ari direnak, eta obra hoberen ezagutzen dutenak”, azaldu du Tenak.

Eragozpen erantsi bat du egoerak, gainera. Zulatzeko makina berezia da, eta tuneletik atera behar baldin bada, lan handia ekarriko du. “200m eraman behar da atzera”, adierazi du Manu Tenak. Horiek horrela, beharginen lanpostuei eustea galdegin die ELAk Coprosari eta Adif-i. “Langileok konponbide bat eskatzen dugu. Guk lanean jarraitu nahi dugu, besterik ez”, azpimarratu du José Joaquín Etxanizek.

Erabiltzaileei ere eragiten die gatazkak

Gaintxurizketako lanek eragina izan dute Renferen aldirietako tren zerbitzuan. Izan ere, 2017ko apirilaz geroztik, trenbide bakarra erabiltzen du Lezo eta Irun artean. Hori dela eta, ordutegi jakin batzuetan, transbordoak egin behar izaten dituzte erabiltzaileek, topoan edo autobusean. Gainera, distantzia luzeko trenak Donostiara iristen dira bakarrik. Gero, aldirietako trena hartu behar izaten dute erabiltzaileek. Behin-behineko egoera horren amaiera 2018ko uztailerako aurreikusita zegoen. Gaintxurizketako tuneleko lanek atzerapena izango dutela kontuan hartuta, ordea, Renferen zerbitzuan duten eragina ere luzatu egingo da.

Olaizola Immobiliaria agentzia
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

ALBERTO BARANDIARAN, kazetaria:

“Jendeak ulertu behar du pederastia sistemikoa izan dela, eta elizak ezkutatu izan duela, urtetan”

Duela pare bat urte, Spotlight filma ikusi eta gero piztu zitzaien arra. 2000.hamarkadaren hasieran Boston Globe egunkarian Ameriketako Estatu Batuetako elizako pederastia kasuei buruz egindako ikerketa kontatzen du pelikulak. Tom McCarthyk zuzendu zuen, eta 2015eko film onenaren Oscar saria eman zioten. “Produkzio amerikar tipiko bat da, gidoi on bat eta aktore bikain batzuk dituena”, adierazi du Alberto Barandiaran kazetariak (Altsasu, 1964): “Baina kazetaritzari buruzko halako gogo berezi bat piztu zigun”. *Ez duzu abusatuko. Pederastia kasuak Euskal Herriko elizan* (Elkar) argitaratu du, Iñigo Astiz eta Miren Rubio kazetariekin elkarlanean.

Profesioarekiko pasioaz gainera, alabaina, barne-barneko beste emozio bat mugiarazi zion filmak. Oroitzapen zahar bat: “Txikitan, Irungo La Salle San Marcialen bizitako pasadizo ilun bat, inoiz ahaztu ez zaidana, eta hor zegoena. Trauma berezirik sentitu gabe ere, nik banuen kontzientzia bat, pelikulan kontatzen ziren haien antzekoa zen egoera batean egon izanarena”. Kazetari gisa heldu dio Barandiaranek gaiari, ordea. Gipuzkoan zalaparta handia eragin zuen Juan Kruz Mendizabal *Kakux* apaizaren auziari buruzko ikerketan ere parte hartu zuen, Berria egunkarian. Horixe kontatzen da liburuan, hain zuzen, Bizkaiko Gaztelueta ikastetxeko kasuarekin, eta hainbesteko sona eduki ez duten beste batzuekin batera.

60ko hamarkadatik XXI.mendeko azken urteetara arte elizgizonen partetik sexu abusuak jasandako biktimen testigantzak jasotzen ditu liburuak. Gainera, legelarien, soziologoen, pedagogoen eta beste zenbait arlotako adituen ekarpenak biltzen ditu, auziaren argazki orokor bat eskaintze aldera. José Ignacio Munilla Donostiako gotzainarekin elkarrizketa ere egin dute libururako. “Erresistentzia askorekin”, aitortu du Alberto Barandiaranek.

Zer nolako oihartzuna eduki du liburuak?

“Argitaratu aurretik, jada, konturatu ginen jende askok gogoa duela gai hauei buruz hitz egiteko. Baina badagoela jende asko, era berean, ezer atera ez dadin nahiago duena. Eta ez naiz elizako hierarkiari buruz hitz egiten ari, soilik. Sentsazioa dugu jende bati gogorra edo deserosoa egiten zaiola gaia. Tripetako zerbait da, sexua, lotsa, erruduntasun sentimendua, eliza... Oso konplexua da. Baina azpimarratu nahi nuke gure asmoa ez dela horia, ez dela morbosoa. Guk nahi duguna da orain arte kontatu gabeko zerbait azaleratzea, kazetaritza egitea, azken finean”.

Alberto Barandiaranek uste du kazetaritzaren premisetako bat dela inoiz kontatu gabeko hori azaleratzea. Batez ere, oinazea eragin baldin badu: “Mina, askotan, isiltasunaren ondorioa izaten da. Gordetako gauzek, ondo zabaldu eta transmititu ez direnek, min bat sortzen dute”. Gainerako bortizkeria kasuetan bezala, sexu abusuei dagokienez gertatu dena kontatzea garrantzitsua eta sanoa dela uste du kazetariak. “Gero bakoitzak bere ondorioak aterako ditu, denbora beharko da bakoitzak gogoeta egiteko. Baina esaten den bezala, orria pasatzeko, idatzita egon behar du”, nabarmendu du.

Jarrera aldatu al du eliza katolikoak, azaleratu diren kasuen ondoren?

“Gaur egun beste jarrera publiko bat dauka elizak: egindakoa onartu behar dela, argitzen saiatu behar dela, eta barkamena eskatu behar dela. Baina egia da, era berean, erresistentzia handiak daudela oraindik. Artxiboak eskatzen baldin badituzu, edo galdera zehatzak egiten baldin badituzu, esate baterako, eragozpen handiak jartzen dizkizute”.

Liburuan, metafora eginez, elizan estintorerik ez dagoela azpimarratu dute egileek. Eraikin askotan, beharbada, ez da inoiz suterik egongo. Baina estintoreak daude, badaezpada. Sexu abusuen aurrean, prebentzio neurriak falta direla uste du Alberto Barandiaranek: “Esango nuke urrats batzuk eman direla, baina oraindik lan asko egin beharra dagoela. Bestalde, benetako kontzientzia bat falta da, ez bakarrik hierarkiaren artean, baizik eta gizartean ere bai. Jendeak ulertu behar du hauek ez direla kasu isolatuak izan. Sistemikoa izan dela eta elizak ezkutatu izan duela, urtetan”.

Hemen ere gertatu izan da

Jasandako abusuak kontatzearen garrantzia azpimarratu dute biktimek

Kontzientzia pizteko, sarritan, halako esperientziak gertuko sentitu behar izaten ditu hainbat jendek. Bada, Irunen ere, badira elizgizonen partetik sexu abusuak jasan dituztenak. Alberto Barandiaranek ziurtzat du bere tutoreetako bat "abusatzailea" izan zela, 1970eko hamarkadan, Irungo La Salle San Marcial ikastetxean. Bizipen hari eskaini dio *Ez duzu abusatuko* liburuaren lehen atala. Badira, gainera, irakasle harekin esperientzia txarrak eduki zituzten beste ikasle ohiak ere.

Oroitzapen kaskarra utzi dio La Salle San Marcialek, orokorrean, Alberto Barandiarani. Deskribapen grisa egin du, eta 70eko hamarkadan eskola "frankista" zela adierazi: "Bortizkeria, diziplina gaizki ulertua, umiliazioa... Agintearen eta hierarkiaren kontrako gorroto sakon bat utzi du nigan". Aldi berean, irakasle onak ere eduki zituela baieztatu du. Gogoan ditu, bereziki, ostiral arratsaldeetako txistu eta euskara klaseak. "Peio eta Pantxoa, Imanol, Urko eta kantari haien musika entzuten genuen, giro erdi klandestino batean", azaldu du: "Bi mundu ziren, eskola berdinean. Bazirelako etxean pistola ondo gordeta zutela zioten irakasleak ere bai".

Ezpainak zeloz estali edo mingaina hariz lotu izan ziotela aipatu du Alberto Barandiaranek. "Irakasle batzuek arautzat zuten indarraren erabilera", berretsi du Jose Luis Zabala ikasle ohiak: "Ohikoa zen hori, garaiko hezkuntzan". Sexuari dagokionez, oso gai "konfliktiboa" zela gogoratu du Barandiaranek: "Garai hartako irakaskuntza erlijiosoak zikiratu egin gintuen. Institutura iritsi ginenean, emozio aldetik motzak ginen. Ez genekien neskekin egoten, hitz egiten, barre egiten". Zentzu horretan, José García irakaslearekin eduki zituzten sexologia klaseen inguruko oroitzapen ona du Barandiaranek: "Guretzat mundu berri bat deskubritzea izan zen hura, interesez eta urduritasun handiz entzuten genuen".

Anaia Valeriok ere sexuaren inguruan hitz egiten zien. Oso bestelako modu batean, ordea. "Guk bagenekien kontatzen zituenak ez zirela gauza normalak", onartu du Alberto Barandiaranek: "Esaten zigun ikasgelan hitz egiten genuena ezin zela bertatik atera". Garaiko EGBko zortzigarren mailan eduki zuen tutore, La Salle San Marcialeko azken ikasturtean. 13 urterekin. Gogoan du anaia Valerioren tutoretzek ikasleen artean eragiten zuten beldurra: "Orduan ez genuen abusu hitza erabiltzen. Ukitu nau, edo gehiegi hurbildu da, esaten genuen". José Luis Zabalak baieztatu du bera ez zuela ukitu. "Oso selektiboa zen", aipatu du.

Nola aurre egin

Xabier Etxeberria, behintzat, hautatu zuen. "Txikia nintzen, eta nahiko txolina, haur mentalitatea nuen", aitortu du. Klase baten ondoren, berarekin geratzeko eskatu zion Valeriok. Kontuz ibiltzeko esan ziola azaldu du Etxeberriak. Inuzenteegia zela, eta munduan zehar jende gaiztoa zegoela, modu txarrean hurbildu eta besarka zezakeena. Eta besarkatu egin zuen. "Bere zakila sumatu nuen bularrean", baieztatu du Etxeberriak. Askatu zuenean, korrika alde egin zuen.

Hurrengo egun batean, bakarrik geratu ziren berriro, eta besarkatzeko eskatu zion Valeriok, bere konfiantza frogatzeko. Berriro alde egin zuen Xabi Etxeberriak. "Hurrengo batean, nirekin haserre, errietan egin zidan, gelako pailazoa nintzela esanez. Lur jota geratu nintzen", azaldu du. Ez zuen etxean ezer kontatu, beldurrez: "Paralizatuta gelditzen zara, ez dakizula zer egin". Lagun bati azaldu zion, baina garrantzia kendu nahi izan ziola aipatu du Etxeberriak: "Gerora, askotan pentsatu izan dut zergatik ez nuen etxean kontatu. Konfiantza nuen gurasoekin".

> **"Paralizatuta gelditzen zara, ez dakizula zer egin"**
>
> Xabier Etxeberria

Hurrengo urteetan anaia Valeriorekin topo egiten zuenetan, izerditan hasten zela baieztatu du Etxeberriak: "Oso urduri jartzen nintzen". 18-19 urterekin, ordea, barruan zuena bota zion behin: "Esan nion banekiela nitaz aprobetxatu nahi izan zuela". Valeriok dena ukatu zuen, eta oso oker zebilela erantzun. Etxeberriak askotan pentsatu izan du, ordea, beste ikasle askorekin ere "horrela" ibiliko zela: "Ez bazuen gauza larriagorik egin".

Alberto Barandiaranek ez du biktimaren kontzientziarik. Bai, berriz, arriskuan egon izanarena. Anaia Valeriok asteburu bat pasatzera eraman zuen ikasle talde bat Donostiako Antiguako etxe batera. Afaldu zuten, eta lo egiterako orduan, ohe bat falta zela konturatu ziren: "Anaia Valeriok esan zidan bere logelara joateko. Nik ezetz erantzun nion, bera haserretu egin zen, eta ni berriz tematuta, ezetz eta ezetz". Lagunek Barandiaran babestu zuten, eta haiekin lo egin zuen, azkenean. "Baina askotan pentsatu izan dut, agian, adorerik izan ez banu, edo lagunek babestu izan ez banindute, nire bizitza aldatu egingo zela", esan du Barandiaranek.

Ezkutatu eta lekualdatu

Urte haren amaieran, Anaia Valerio lekualdatu egin zuten. Errioxako San Asensio herriko ikastetxera bidali zuten. "Ezin izan dut baieztatu sexu afera baten ondorioz izan ote zen", onartu du Alberto Barandiaranek: "Baina argi dago irtenbide hori orokorra izan dela, elizak berak onartua. Salaketa bat zegoenean, denbora batez lekualdatzea. Lehenengo, ezkutatzen saiatzea, eta gero, tokiz aldatzea. Gaur egun badakigu prozedura ohikoa izan dela, argi dago elizaren estrategia hori izan dela urtetan". Anaia Valerio itzuli egin zen. Lauzpabost urte beranduago Irunen egon zen berriro. Eta handik gutxira, hil egin zen.

Hura argitzen ahalegindu da Alberto Barandiaran, *Ez duzu abusatuko* libururako. Besteak beste, garaian bere irakasle izandako Anaia Jorgerekin: "Harrituta entzun zuen nire kontakizuna. Behin eta berriro nabarmendu zuen berak ez duela ezer gogoratzen. Anaia Valeriok lagundu egin ziola Irunera iritsi zenean, eta erreferentzia bat izan zela gainerako anaien artean". Irunero aldizkarirako elkarrizketa egiteko eskaera jaso duenean, Anaia Jorgek erantzun du ezin duela laguntza handirik eskaini, garai hartan ez zelako La Salle San Marcialen lanean ari.

Jarrera aldatu al da?

Gai korapilatsua da, eta jende askok zalantzak ditu, aspaldiko kasuak azaleratzeko beharraren inguruan. José Luis Zabala berak aitortu du hori. Xabier Etxeberriak, aldiz, bere testigantza baliagarria izan dadin espero du: "Gaur egun egongo da jendea horrelako abusuak jasaten ari dena. Gertatutakoak entzuten baldin badituzte, agian beste arma batzuk topatuko dituzte". Nabarmentzekoa da Irungo El Pilar ikastetxean irakaslea dela, gaur egun. Baieztatu du bertan ez duela inoiz halako kasuen berri izan. Hala ere, onartu du ez dutela gaia behar bezain beste landu: "Lehen ere bazeuden bullying kasuak, adibidez, baina orain kontzientzia dugu, eta aurre egiten diegu. Kasu honetan berdina behar genuke".

Sexu abusuei dagokienez, gaur egun Irungo La Sallen "oso sentsibilizatuta" daudela baieztatu du Amaia de la Caba zuzendariak: "Edozein susmoren aurrean protokoloa irekiko genuke, eta lehenengoak izango ginateke egoera Hezkuntza ikuskariaren aurrean edota Ertzaintzaren aurrean salatzen, haurren babesa eta ongizatea bermatzeko". Nabarmendu du La Sallen badutela kode etiko bat, non garbi agertzen den neska-mutilen eskubideak babesteko daukaten konpromisoa. Estintoreak behar dira, ikastetxe guztietan, sexu abusuak ekiditeko.

Atzerrira, lehen aukeren bila

Munduko leku ezberdinetan lanean dabil hainbat gazte irundar

“Londresen, eguneroko interakzioak hotzagoak dira”

Haizea Olaizola

“Zeelanda Berrian ez da hango estresik ikusten. Kezka eta urduritasuna saihesten dituzte”

Ander Moron

“Zure burua esperientzia berri pilaz hornitzen duzu, eta egoera berriei aurre egiten ikasten duzu”

Denis Ugarte

Lana dela edo ikasketak direla, mundu osoan zehar topa daitezke, gaur egun, gazte irundarrak. Hurrengo protagonistak elkarrengandik oso urrun bizi dira une honetan. Baina jatorriaz gainera, atzerrian lan egiteko aukerak batzen ditu. Eusko Jaurlaritzaren Gazteak Atzerrian programaren bidez, Global Training bekak jaso dituzte, eta zenbait hilabetez lanean ari dira orain, munduko leku ezberdinetan.

Ikasketak amaituta lan munduan lehen urratsak ematea ez da samurra izaten. Esperientziarik gabe, lehen lanpostua topatzea zaila izaten da. Horiek horrela, Global Training bekaren moduko aukerek sarbide egokia eskaintzen dute. “Nire arloan, esperientziarik gabe lan duin bat topatzea nahiko zaila da”, aitortu du Haizea Olaizolak. Literatura ikasketak ditu, eta masterra Amsterdam-en (Holanda) egin ondoren, Global Training beka eskatu zuen. Erresuma Batuan dago gaur egun, Londresen. *Hay Festival of Literature and the Arts* festibala prestatzeko lanean dabil. Maiatzaren 24tik ekainaren 3ra izango da, Galesen. Hitzordua antolatzeko gogor lan egin ondoren, bertan egongo da Olaizola: “Festibalarekin bukatuko dut egonaldia, eta esperientziari amaiera polita emateko modua izango da”.

Denis Ugartek ere masterra amaitu berritan egin zuen Global Training beka jasotzeko eskaera. Zeharo ezberdina den sektore batean, ordea; telekomunikazioetako ingeniaria da. Cagliarin dago gaur egun, Sardiniako hiriburuan (Italia). Unibertsitateko laborategi batean dabil lanean, segurtasun informatikoaren arloan: “Oso gustura nago, lankideak oso jatorrak dira eta lan-giroa lasaia eta goxoa da. Gainera, inguruko enpresekin zenbait proiektu burutzen dituzte eta horrek enpresa munduarekin kontaktuan egotea ahalbidetu dit”. Lan arloko aukerez gainera, Mediterraneoaren erdiko irla batean egoteak baditu bestelako abantailak ere: “Leku politak ditu, kosta guztia hondartza eta kala ederrez betea dago. Bestetik, jendea oso jatorra eta lagunkoia da eta oraindik ez dago turistaz lepo, beste irla famatu batzuen antzera”.

Europatik kanpo ere bai

Dezente urrutiago dago Maddi Arzak biologoa, Argentinako Santa Rosa hirian, Pampa hezean. Landa eremu handiak ditu inguruak, eta abeltzaintza da bertako jarduera ekonomiko nagusia. “Hasieran arraroa egiten zitzaidan mendirik gabeko eremu guztiz lau batean bizitzea, baina poliki-poliki ohitu egin naiz, eta lautasun horrek ematen dituen ilunabarrek eta egunsentiek konpentsatzen dute”, azaldu du Arzakek. Bere ikasketekin loturarik ez zuen lan batean zebilen Euskal Herrian, eta orain, La Pampako unibertsitateko ikerketa talde batean dago. Hegazti zentsoak, harrapaketak eta eraztunketak egiten ibili da, eta momentu honetan, pumaren inguruko proiektu batean nabil, parke nazional batean duen populazioa estimatzen: “Lanean oso gustura nabil. Esperientzia honek bertako fauna eta flora ezagutzen laguntzeaz gain, ikerketako beste arlo batzuetan murgiltzeko aukera eman dit”.

Zeelanda Berrian dago Ander Moron kazetaria. Denbora darama lan munduan, boladaka, epe luzeko kontraturik gabe. “Ateak jotzen espezialistak gara, eta, halako gozokia ikusi nuenean, ezin aukera galdu”, azaldu du. Moronentzat, osagai erakargarri asko biltzen zituen Global Training bekak: “Zeelanda Berrira joateko ametsa bete ahal izatea, ingelesa lantzeko aukera, eta enpresak berak erakartzen ninduela”. Nelson hirian bizi da, hegoaldeko irlan. Herrialdea ezagutzeko abentura bidaiak antolatzen dituen enpresa batean ari da. Bere zeregin nagusia, web gunerako eta sare sozialetarako edukiak sortzea da: testuak, bideoak, itzulpenak etab. Azaldu du Euskal Herriaren antzekoa dela ingurua: “Itsasoa iparraldean, mendiak hegoaldean, eta baso ugari, asko pinuz beteak, aspaldi egurretarako landatuak. Klima ere antzekoa da. Postaletan ikusten ditugun eta Eraztunen Jaunak hain ezagun egin zituen paraje ikusgarriak hegoalderago daude”.

“Atzerrira joateak perspektiba ematen dizu, beste errealitateak ezagutzen dituzu”

Maddi Arzak

Ohitura eta bizimodu ezberdinak

Ander Moronek azpimarratu du Nelson inguruko bizimodua oso lasaia dela. “Ez da hango estresik ikusten. Kezka eta urduritasuna saihesten dituzte, pozik eta nahi dutena eginez bizitzea dute helburu”, argitu du. Mundu mailako aktualitateari, aldiz, ez diote gehiegi erreparatzen: “Klima aldaketaren aurkako kontzientzia sendoa dute, hori bai, baina gainontzeko dena, nahikoa urrun geratzen zaiela iruditzen zait, askotan”. Denis Ugartek sardiniarren hurbiltasunean jarri du arreta: “Oinarrizko edukazio-moduak mantentzen dituzte, eta oso atsegina da hori. Adibidez, denda edo taberna batean beti agurtzen dute, nahiz eta zu ez ezagutu, irten behar bazara pasatzen uzten zaituzte, ezagutu gabe zurekin hizketan hasten dira, etab.”.

Maddi Arzakek ere argentinarren jarrera irekiarekin harrituta gelditu dela baieztatu du: “Ezagutu eta berehala gonbidatzen zaituzte etxeetara. Ohitura handia dute jendea elkartu, eta haragia erre eta denen artean banatzeko”. Bestalde, folklorearekiko lotura deigarria iruditu zaio: “Oso tipikoa da horrelako afari batera joan eta baten batek gitarra atera, bertako kantak kantatzea eta batzuetan baita dantzan hastea ere bai”. Zeharo ezberdina da, aldiz, Haizea Olaizolaren ingurua. Londresen dago, munduko hiri handi eta kosmopolitenetako batean. “Beti mugimenduan dagoen hiri batean, denetarik egiteko aukera daukazu: museoak, erakusketak, bigarren eskuko azokak, zuzeneko musika eskaintzen duten tabernak... Gainera, mundu guztiko jendearekin kontaktua edukitzeko aukera duzu”, adierazi du Olaizolak. Alde negatiboak ere baditu, dena den. Batez ere, kaleetan arnas daitekeen giro indibidualista: “Kontraste dezente dago Mediterraneo aldeko erlazio interpertsonalekin; hemen, eguneroko interakzioak hotzagoak dira”.

Nazioarteko esperientziaren onurak

Atzerrian halako esperientzia bat edukitzea oso aberasgarria dela baieztatu dute denek. Konfort-eremu famatua apurtzearen balioa nabarmendu du Denis Ugartek: “Zure burua esperientzia pilaz hornitzen duzu. Jende berri asko ezagutzen duzu eta egoera berriei aurre egiten ikasten duzu”. Globalizazioaren aroan bizi garela ziurtzat hartzen dute denek, eta beharbada, etorkizunean ere atzerrian lan egitea egokituko zaiela uste dute. “Egoera horretarako entrenamendu paregabea da”, aipatu du Ugartek. Kontratua luzatu du ingeniariak, eta maiatzean Global Training beka amaitzen zaionean, beste bederatzi hilabetez geldituko da Sardinian.

Ander Moronek onartu du gustura geldituko litzatekeela Zeelanda Berrian. Ez du bueltatzeko aukera baztertzen, baina oraingoz, etxera itzuliko da. “Lan pixka bat egin, eta gero gerokoak”, adierazi du. Maddi Arzakek Euskal Herrira itzultzeko intentzioa du, Argentinan ez baitago ikerketarako diru-iturri handirik. Bertan lortutako esperientzia baliatu nahi luke, hala ere: “Atzerrira joateak beti perspektiba ematen dizu, beste errealitate batzuk ezagutzen dituzu. Gainera, aukera honek beste batzuk zabaldu diezazkizukeela uste dut, atzerrian bertan edo itzultzean”. Haizea Olaizola ere Irunera bueltatuko da, horixe eskatzen baitio orain gorputzak, denbora asko daramalako atzerrian. Hala ere, ez du ezkutatu laster berriro maleta egiteko gogoa: “Etxetik lanpostu aukerei buruz hausnartu, eta gero ikusiko dut ea zein izango den hurrengo lekua”. Atzerrian ibili ohi direnak ez baitira luzaroan etxean geratzekoak.

ANTXETA
IRRATIA
90.5 / 89.7 FM

Anaka kalea, 11
IRUN
943.61.54.57

TABISA
TANATORIO DEL BIDASOA

San Pedro kalea, 49
HONDARRIBIA
943.64.54.57

BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN

ARITZ MARTIARENA, rally pilotua:

“Etxekoen babesarekin oso eskertuta nago”

Olaberria auzoko pabiloi zahar batean dauka autoa Aritz Martiarena rally pilotuak (Irun, 1993). “Txerriak eta ardiak gizentzeko erabiltzen zen, garai batean. Guk merke alokatu dugu orain”, azaldu du. Hori bai, ez dute argirik, ezta urik ere: “Moldatzen gara, generadore batekin eta euri ura depositu batean bilduz”. Bertan prestatu du ibilgailua, rallyetan parte hartu ahal izateko. Estitxu arreba eramango du aurten alboan, kopilotu lanean.

Txikitatik izan zara motor munduaren zale?
Aita mekanikoa dut, eta betidanik gustatu izan zait motor mundua. Txikitan motoekin, batez ere, baina gidabaimena atera nuenetik aurrera, kotxeekin. Orain dela bi urte hasi nintzen kotxea prestatzen, rallyetarako.

Nolakoak izan dira lehen esperientziak lehian?
Iaz lehen proba batzuk egin nituen igoeretan, ez dutelako baldintza zorrotzik eskatzen. Ibardingoa izan zen esperientzia onena, eta okerrena, Jaizkibelgoa, kotxeak huts egin zidalako, non eta etxeko igoeran.

Aurten rallysprintetarako kotxea homologatzen ari naiz. Betebeharrak askoz gehiago dira. Etxekoen eta lagunen laguntza asko eskertu behar dut, zentzu horretan.

Zaletasun garestia da, ezta?
Pieza bat dela, bestea dela, kotxeari hobekuntzak egin nahi dizkiozula... Oso zaletasun garestia da. Garai batean babesleak lortzea errazagoa zen. Baina tira, azkenean denok gastatzen dugu dirua, modu batera edo bestera. Zenbat diru xahutzen du jende askok parrandan?

Kotxea egindako aldaketez gainera, zuk nola hobetu dezakezu?
Proba batetik bestera, egindako akatsetatik ikasten ahalegintzen naiz. Bideoak ere ikusten ditut, aztertzeko nola hartu nuen bihurgune bat edo bestea. Zirkuituetara ere joaten naiz tarteka, probak egitera.

Aurten kopilotua eduki beharko duzu. Nola hautatu duzu?
Bai, egia esan lagun pare batek eskaini dit. Baina etxekoen babesarekin oso eskertuta nago, eta arreba aterako da ondoan. Asko gustatzen zaio, dagoeneko proba askotara lagundu nau, kotxea prestatzen ere bai, eta orain ilusioa du nirekin lasterketa batzuetan gozatzeko.

Denbora luzez ibili nahi zenuke rallyetan?
Ez, nik neuk badakit hiruzpalau urterako kontua dela. Ezin dut berrogei urtera arte nire soldataren zati handiena rally munduan gastatzen ibili. Orain 24 urte ditut eta zaletasun honekin denbora batez gozatzeko momentua dut. Gero etorriko da beste gastu batzuetan pentsatzeko garaia.

Zein duzu aurtengo egutegia?
Maiatzaren 4-5ean Izpegiko igoeran hasiko naiz, Baztanen. Gero, maiatzaren 20an, Irungo San Martzialeko igoeran parte hartuko dut. Ekainak 10-11n Ibardingo igoeran ariko naiz berriro, Beran. Ilusio handia dut horretarako, iaz oso ongi ibili nintzelako. Sanmartzial egunean, ekainaren 30ean, slalom batean parte hartuko dut Donezteben.

Abuztutik aurrera rallysprintak etorriko dira, horien artean Hondarribikoa. Gogo handia dugu horretarako, bai arrebak eta baita nik ere. Tramoa ezagutzen dugu, eta jende ezagun asko egongo da animatzen.

Berregituratzeko garaia du Mariñok

Pausoz-pauso indartuz doa emakumeen talde nagusia, iaz Euskal Ligara jaitsi ondoren

Aldaketa urtea du Mariñoko emakumeen talde nagusiak. Egokitzekoa. Bigarren Mailan hiru urte eman eta gero, iaz ezin izan zuen jaitsiera ekidin. Hortaz, 2017-2018 denboraldian, Euskal Ligan ari da berriro. Kosta zitzaien, denboraldi hasieran, lehen bost jardunaldietan garaipen bakarra lortu baitzuten. Orain sailkapenaren erdian daude, ez atzera eta ez aurrera. Geratzen zaizkien jardunaldietan, hobetzen jarraitzea dute helburu, hurrengo sasoirako oinarria finkatzeko asmoz.

Denboraldi gogorra izan zen iazkoa. Lan talde murritza eduki zuen Mariñok, eta behin baino gehiagotan, hamaika jokalari besterik ez ziren aurkeztu partida batzuetara. "Aldaketarik gabe aritu ginen, bai", konfirmatu du Laura Gonzalez atezainak: "Entrenamendu batzuetan, bospasei lagun besterik ez ginen aritu". Hala ere, taldeak lan handia egin zuen, eta azken jardunaldira arte eutsi zion jaitsiera ekiditeko aukerari. Kolpe handia izan zela adierazi du Gonzalezek: "Lur jota geratu ginen. Gero Kopa etorri zen, eta ez genuen jokatu nahi izan".

Denboraldia bukatuta, eskualdetik kanpo zetozen jokalariek taldea utzi zuten. Baina gainerakoan, taldekide gehienek jarraitzea erabaki zuten. "Jende gehiago etor zedin ere lortu genuen", nabarmendu du Laura Gonzalezek. Carmelo Perez *Melo* eseri zen aulkian, azken aldiz taldea Bigarren Mailara eraman zuen entrenatzailea. Gonzalezek aitortu du aurten igotzen saiatzea zutela helburu. Uste baino maila handiagoa topatu dute, ordea, Euskal Ligan. Hasiera txarra, gainera, karga handia izan da aurrerantzean. "Entrenatzaile eta taldekide berriak genituen. Erritmoa hartu arte, denbora behar izan genuen", adierazi du Udane Olaziregik.

Denboraldiak aurrera egin ahala, hobera egin du taldeak. Baina beheraldiak ere izan ditu, tarteka. Gabonetan, adibidez, geldialdi luzea eduki zuen ligak, hilabetea egin zuen Mariñok lehiatu gabe. "Entrenamenduetan ere erlaxatu egin ginen, eta hori nabaritu egin zen", onartu du Olaziregik. Gol falta nabarmena du Mariñok, baina hutsune hori, historikoa dela uste dute taldekideek: "Mariñok beti eduki du golak sartzeko zailtasuna". Horregatik, hain zuzen ere, defentsan hobetu behar dutela uste du Laura Gonzalezek: "Taldea atzetik aurrera eratu behar dugula iruditzen zait. Defentsa sendoa osatzen baldin badugu, zelai erdian baloia jokatzen duten jokalariak erosoago ariko dira".

Hurrengo denboraldiari begira

Aurten, dagoeneko, igoeraren bila lehiatzeko aukerarik ez du izango Mariñok. Pixkanaka hobetuz jarraitzeko helburua izango dute emakumeek. Hurrengo sasoiari begiratzen diote, jada. "Taldekide gehienok segitzen baldin badugu, aurten egindako lana nabarituko da", aipatu du Udane Olaziregik. Konpromiso puntu bat gehiago ere eskatu du, dena den: "16-17 jokalari erregulartasunez entrenatzera etor daitezen lortzen baldin badugu, nik uste badugula goian ibiltzeko aukera". Izan ere, taldekide askok Irundik kanpo ikasten edo lan egiten dute, eta kostata elkartzen dira denak entrenatzera.

Mariñok daukan beste eragozpen handiena da kadete mailatik talde nagusira dagoen jauzia. Klubak ez baitu jubenil mailako talderik. "Garai batean, neska gehiago aritzen ziren futbolean", adierazi du Olaziregik: "Gaur egun, aukera gehiago daude, eta sakabanatuago daude kirola egiten duten neskak". Horregatik, emakumeen futbol profesionalak aurrera pausoak eman dituen garaian, behean, oinarriko kategorietan, futbolak atzera egin duela uste dute Mariñoko taldekideek.

"Defentsa sendoa osatzen baldin badugu, zelai erdian baloia jokatzen duten jokalariak erosoago ariko dira"

Laura Gonzalez, Mariñoko atezaina

"Taldekide gehienok segitzen baldin badugu, aurten egindako lana nabarituko da"

Udane Olaziregi, Mariñoko jokalaria

Hiru Erregeen Mahaia (2.446m), Linzako aterpetxetik

GORKA MARTINEZ
unpaisenmimochila.blogspot.com

Denbora: zazpi ordu eta erdi (geldialdirik gabe).

Desnibel metatua: 1.279m.

Zailtasuna: Zaila. Udaran, ibilbide luzea da, desnibel handikoa. Elurrarekin, aldiz, azken tartea arriskutsua izan daiteke, esperientziarik ez dutenentzat.

Nafar Piriniora irteera egiteko proposamena, Aste Santurako. Euskal Herriko tontor garaiena da Hiru Erregeen Mahaia (2.446m). Kondairak dio Nafarroako, Aragoiko eta Bearnoko erregeak tontorrean elkartzen zirela antzina, bakoitza bere lurraldetik atera gabe, erresumen gobernuari buruzko eztabaidak edukitzeko.

Linzako mendi-aterpetxean hasten da ibilbidea (1.347m), Huescako Ansó haranean. GR11 bidea jarraituko dugu, orain zuri dauden soro ederretan gora, Linzako lepora iritsi arte (1.936m). Behera egingo dugu ondoren, Hoya de la Solana delakora, gorako bidea hartzeko gero, etenik gabe, Mahaiko lepora iritsi arte (2.305m). Ibilbideko tarte arriskutsuena dator orain, elurraren egoeraren arabera, beti ere. Udaran, erosoa baita tontorrerako bidea. Sasoi honetan, alabaina, gomendagarria da soka eramatea, izotza edo elur biguna topatuz gero erabiltzeko.

Bueltako bidea berdin-berdina da, eta luze gerta daiteke. Elurraren egoeraren arabera, zorua irristakor egon daiteke. Hori dela eta, pioletak oso erabilgarriak izango dira.

Dunboa HH

Dunboa ikas-komunitatea
Haur hezkuntza

EGONALDI MOTAK:

- Egonaldi iraunkorrak
- Aldi baterako egonaldiak familiaren atsedenerako
- Erreabilitazioa, operazio ondokoak eta gaixondoak
- Alzheimerra eta bestelako dementziak dituzten gaixoentzako egonaldiak
- Eguneko zentroak 365 egunetan irekita, GFA rekin hitzartuak, baita Pirineo Atlantikoko Departamenduarekin (APA diru laguntza), garraioarekin Irun, Hondarribia eta Hendaiara

caser residencial

CASER ANAKA
Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780
CASER BETHARRAM
Zubieta Kalea, 161 - HONDARRIBIA 943 647169

IRUNABAR
IRUNGO BERTSOAREN BILGUNEA

BURDINDEGIKO SALTZAILEARENA

Doinua: Andre txarraren bentajak

Egilea: Beñat Elosegi

Lotsarik gabe kontatu nahi dut
aske utzirik barrena
burdindegiko saltzaile batek
jasan beharra duena.
Torloju, tresna, soberan baina
pazientzia da problema
jende aurrean une batzutan
errezegi galtzen dena.

Gure lanean nahiz eta jakin
behar dugula hobetu
zerbitzu ona doi emateko
izan bezeroa gertu.
Harremana ia beti ona
nahiz batzuetan okertu
bezeroak zer eskatzen duen
ezin denean ulertu.

Halako traste, zerako gauza
katxarroan gisakoa,
uste al du ba azalpen hori
emanda dela nahikoa.
-Ez, ez didazu ezer ulertu-
ta geratzen da bapoa,
pazientzia izaten dugu
lanpostu hontan gakoa.

-Arratsaldeon saltzaile hori
torloju bat behar nuke.
-Ta nolakoa? hamaika forma
ta neurri izaten dute,
lasai, zein behar duzun asmatzen
badugu nahiko bertute;
tori torloju bat bururako
galdu duzunaren truke.

-Behar dudana nola azaldu
zail da hitzez esatea,
paper batean arkatzaz txukun
marraztu eta pakea-.
Surrealista dudarik gabe
honek dakarren artea,
zer ote da hau tximista edo
jirafaren errapea?

Dena normala delako ustez
behar dena ezin hauta
behintzat kalibre salmentarekin
ez dugu izango mauka,
ta zehaztasun eskasi horrek
ni kokoteraino nauka:
plataforma bat sortu behar dut
estandar hitzaren aurka.

Zer nahi duen ez dakien hori
galduta dagona plazan,
lau despistatu, bi jubilatu
aspertu denbora pasan
hurbilduz datoz ta nerekiko
jainkuak babestu nazan,
a zer nolako jende goxoa
behar duguna guk jasan.

Zulo gabeko bi zirrindola,
ura lotzeko sei kate,
gurpil karratu bat eta hiru
litro elektrizitate.
Batzuk adarra jotzeko nahia
beti soberan daukate,
umore ona jartzen dute ta
ez da guretzako kalte.

Xume ta apal den jendeakin
beti da horren erreza,
haundi ustetan heldu den horrek
berriz presa eta kexa.
Prezioakin borrokatzen du
tratua seko nekeza,
ordaindu egin behar denean
aldatzen du interesa.

Mila protesta eginagatik
gera askorentzat morroi
esanetara zintzo gauzkate
ez ausart eta ez heroi,
baina aitortza egitekotan
ona da edozein sasoi:
guk pazientzia izaten dugu
ta bezeroak arrazoi.

Eguzkitza LH3



bideosare
-> Ikus-entzunezko proiektuak
-> Bideo grabaketa eta edizioa
-> Multimedia
Bideoak zure erara !
bideosare.com

“Askoz irekiagoa naiz orain, artista gisa”

SAIOA LOPEZ BRIONES, dantzari profesionala

Oso gazte hasi zuen ibilbide profesionala, eta dagoeneko, eskarmentu handia du dantzaren munduan. Madril eta New York artean bizi izan da azken urteotan, baina pixkanaka, hanka bat jaioterrian kokatu nahi luke Saioa Lopez Brionesek (Irun, 1985). Bertan eman zituen lehen urratsak, eta etorkizuna ere Irunen irudikatzen du dantzariak. Bere esperientzia guztia inguruko hasiberrien artean zabaldu nahi luke.

Irunen hasi zinen dantzan?
Bai, txikitatik aritu izan naiz dantzan, batez ere amaren eraginez. Berak dantza egin izan du beti. Beraz, ni ere dantza klaseekin hasi nintzen txiki-txikitan, eta pianoarekin ere bai.

Donostiara joan nintzen eskolara, baina institutuko azken bi urteak Irunen egin nituen. Mutilekin elkartu nintzen orduan, lehen aldiz. Irungo Udal Dantza Kontserbatorioan ibili nintzen bitartean, Sonia del Barrio irakaslearekin.

17 urterekin Madrilera joan zinen. Nola animatu zinen, horren gazte?
Selektibitatea egin nuen, eta gogoan dut elkarrizketa garrantzitsua eduki nuela nire tutorearekin. Berak animatu nahi izan ninduen unibertsitatean gelditzera. Baina erabaki nuen Madrilera joatea, dantzan jarraitzera. Carmen Rocheren eskolan sartu nintzen.

Nolakoak izan ziren urte haiek?
Sei urte eman nituen Carmen Rocheren eskolan. Lehen urteak nahiko gogorrak izan ziren, etxetik kanpo egoteaz gainera, diziplina zorrotza eskatzen zutelako dantza ikasketek. Hala ere, asko ikasi nuen, eta heldutasuna lortzeko modu azkarra izan zen.

Carmen Rochek bere eskolan irakasle izateko hautatu ninduen. Bere doktrina eta metodologiak ikasi behar izan nituen. Hurrengo hiruzpalau urteetan, Carmen Rocheren ballet konpainiako kide eta haren eskolako irakasle izan nintzen.

Nolakoa izan zen esperientzia, haurrekin?
Oso-oso berezia, arlo pertsonalean, baina profesionalean ere bai. Diziplina irakatsi behar nien, baina ondo pasa zezaten bermatuz, era berean. Ni nahiko lotsatia nintzen, berez, eta eboluzio handia eduki nuen orduan. Gaur egun haur horiek non dauden ikusita, harro sentitzen naiz egindako lanarekin.

Madrildik New York-era.
Udara batean New York-eko koreografo bat ezagutu nuen Madrilen. Bere ikastaroan parte hartu nuen, eta New York-era joatera animatu ninduen. Bi hilabeterako joan nintzen, baina hortik aurrera, Madril eta New York artean bizi izan naiz. Azkenean Madrilgoa utzi eta New York-en instalatu nintzen.

Nolakoa izan da zure bizitza New York-en?
Ikasle bisa batekin hasi nintzen. Beka bat izan nuen diru-iturri, artista bisa atera ahal izan nuen arte. Dantza eskolak ematen hasi nintzen, house, hip-hop eta beste estilo batzuetan. Asko hazi nintzen dantzari gisa.

Nabarmendu nahi nuke bertan ez zaituztela epaitzen jatorriagatik, itxuragatik, fisikoagatik edo dena delakoagatik. Mundu osoko lagunak ditut New York-en.

Saltsan ere hasi zinen, bertan.
Bai, eta aurkikuntza handia izan zen. Ez nuen sekula pentsatu saltsa dantzatuko nuenik. Hobby gisa hasi nintzen, eta konpainia batean amaitu nuen, burugogorkeriagatik eta esfortzuagatik. Saltsaren munduan teknika eduki behar da, baina batez ere, nortasun handia. Ni askoz irekiagoa naiz orain, artista gisa.

Bueltatzeko asmorik al duzu?
Momentu honetan trantsizio une batean nago nire bizitzan. Fernando Lazaro koreografoak Madrilen produkzio bat egiteko kontratua eskaini dit, eta horixe egingo dut orain. Produkzio pedagogikoa da, oso interesgarria.

Orain Madril-Irun artean ibiliko naiz. New York-etik Irunera itzultzea kontraste handiegia litzateke, beraz, uste dut oreka topatzeko modu egokia izan daitekeela. Etorkizunean, gustatuko litzaidake hemen eskola bat irekitzea, urtetan lortu dudan ezagutza guztia zabaltzeko.

Argazkia: Estudio Gover

- **Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian**
- **Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40**
- **Posta elektronikoz: igazte@irun.org**
- **Webean: www.irun.org/igazte**
- **WhatsApp bidez: 607 771 173**

5 begirale behar dira aktibitateeta-rako

Lantokia: IrriSarri Land (Igantzi - Nafarroa)

Egitekoak:
. Harrera egitea, breefing-a egitea eta bezeroei laguntzea hainbat jarduera-tan.
. Ekipoak eta instalazioak behar bezala erabiltzen direla kontrolatzea eta errebisatzea, une oro bezeroaren segurtasuna bermatuz.
. Bezeroari entzutea eta bere esperientzia ahalik eta atseginena izan dadila ahalbidetzea...
. Egin behar diren jarduerak: tirolinak, pendulua, hipika, jaitsiera bizikletan...

Betekizunak:
Prestakuntza eta esperientzia
Hizkuntza: Euskara

Kontuan hartuko da:
Hizkuntzak: Ingelesa eta frantsesa
Gidabaimena eta ibilgailua edukitzea gomendatzen da

Emaila: Interesatuta bazaude, bidal ezazu zure CVa direccion@irrisarriland.es helbidera

Graduondoko ikasketak egiteko bekak 2018-2019

Iberdrola Espainia bekak Graduondoko ikasketak egiteko 2018-2019

Arloak: Ingeniaritza, Informatika, Matematika, Big Data, Informazio eta Komunikazio Teknologiak, Giza-zientziak, Zuzenbidea, Administrazioa eta Enpresa Zuzendaritza eta Marketing Digitala

Tokia: Espainia, Erresuma Batua edo Ameriketako Estatu Batuak

Betebeharrak:

- Espainiako nazionalitatea izan edo Espainian bizilekua edukitzea

- Graduko edo lizentziaturako titulo unibertsitarioa izan edo azkeneko kurtsoa egiten egotea 2017-2018an

- Ingeleseko ziurtagiria izatea

Iraupena: Urte bat gehienez

Apuntatzeko epea: 2018ren apirilaren 2an

Jarraitu iGazte Instagram-en

IGazte Instagram-en dago

Jarraitu @igazte

Eta nahiago baduzu, Facebook-en eta Twitter-en ere bai

Zure zain gaude !!!

Udara honetan ere Gazte Elkartrukaketak izango ditugu!

Pixkanaka pixkanaka udara hurbilduz doa...

aurten zerbait ezberdina eta dibertigarria egin nahi zenuke?

13-17 urte bitarte duzu?

Ba al dakizu aurten Kultur Ondarearen Europako Urtea dela?

Beste herrialdeetako gazteekin Gazte Elkartruke batean parte hartzea gustatuko litzaizuke?

Adi egon! Laster berri gehiago izango ditugu !

Informazio gehiago: Gazteen Nazioarteko Mugikortasun Zerbitzuan (CBA Kultur Gunean gaude - San Juan Harria plaza, z/g, -1. solairua)

Ordutegia:
- Astearte, ostegun eta ostiraletan, 11:00etatik 13:30era
- Astelehen eta asteazkenetan, 17:00etatik 19:30era

APIRILAK

1

Zer?
Meakako Adixkideak-ek antolatuta Mutxikoak eta dantzak

Ordua?
12:00etatik13:00etara

Non?
San Juan Plazan

Prezioa?
Doan

7

Zer?
Rulo y La Contrabanda taldeak Amaia Kultur Zentroan joko du, "Objetos perdidos" antzerki-biraren barruan. "El doble de tu mitad" diskoa aurkeztuko du eta aurreko lanetako konposizio arrakastatsuak birpasatuko dituzte. Taldeak Gipuzkoan emango duen kontzertu bakarra izango da, eta Euskadin emango dituen bi kontzertuetako bat.

Non?
CBA Udal Liburutegian

Prezioa?
16,65 € sarrera orokorra; 12,50 € langabeen, 14 urtetik beherakoen eta gazte txartela dutenen kasuetan.

Ordua?
20:00etan

8

Zer?
Oiasso museotik irten eta meatzeetako trenak Irugurutzetako mea-barrutira eramango gaitu non meatzeak eta kaltzinatze labeak bisitatuko ditugun.

Publiko guztientzat. Aldez aurretik izena emanda

Non?
Oiasso Erromatar Museoa
Eskoleta, 1

Izena emateko?
- Telefonoz: 943639353
- Emailez: info-oiassomuseo@irun.org

Prezioa?
5,50 euro

Ordutegia?
11:00etan

12

Zer?
XLIII Bertso gaua Kabigorrin.

Bertsolariak:
Iñigo Ugarte
Nerea Elustondo
Xabi Maia
Iñigo Mantzisidor "Mantxi"
Miren Artetxe
Gai Jartzailea: Oihana Aranburu

Non?
Kabigorri Bidasoaldeko Ateneoa
Sarjia, 1, atzealdea

Ordutegia?
19:30ean

Prezioa?
Doan

29ra arte Meakako jaiak

Zer?
"Zirkua eta Txotxongiloak" erakusketa didaktikoa eta ibiltaria da. Zirkua dibertsio hutsa da. Erakusketa honen bidez zirkoaren plazer estetikoa islatu nahi izan da, zirrikitu bat utziaz imajinazioari.

Bisita gidatuak autorearekin larunbatetan, apirilaren 7, 14, 21 eta 28an, 18.00etatik 20.00etara

Ordutegia?
Asteartetik larunbatera 18:00-21:00 / Igandeetan eta jai egunetan 11:30-13.30

Non?
Amaia KZ erakusketa aretoa
Lopez de Becerra, z/g

Prezioa?
Doan

Astelehena 2
- 09:00: Ibilaldi antolatuaren irteera (izen-emateak 08:00-09:00)
- 18:00: Truck eta Toka Txapelketa

Larunbata 7
- 18:00: Patata Tortila Lehiaketa

Igandea 8
Auzoko nagusien eguna
- 11:00: Meza
- 12:00: Motozerrarekin egindako egurrezko figurak eta bertsolariak
- 14:00: Auzoko nagusien bazkaria

Informazio gehiago:
http://meaka84.blogspot.com.es/

2019an ezkonduko zara?
ezagutu
gure lanak
kode hau
eskaneatuz
Estudio
Gover
Ezkontza argazkilariak
Letxunborro hiribidea 100,2.
20305 Irun (gipuzkoa)
943 840 113 - 647 930 484
hola@fotogoverbodas.com
www.fotogoverbodas.com